

JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZAN EMANDAKO ZERBITZUEN TASAK ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA. 2019

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen foru-arauaren arabera, eranskinean zehaztutako jarduerak egin eta zerbitzuak emateagatiko tasak ezarri eta eskatu ditu, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, hori osatzen baitute.

II.- APLIKAZIO-EREMUA.

2. artikulua.- Ordenantza hau udal-mugarte osoan aplikatuko da.

III.- ZERGA-EGITATEA

3. artikulua.- Partikularrek eskatuta, Udal Administrazioak benetan zerbitzua emateak edo jarduera burutzeak eratzen du zerga-egitatea.

IV.- SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua.- Ondoko hauek dira subjektu pasiboak, zergadun kontzeptupean: Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean aipatzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak, jarduerak edo zerbitzuak eskatzen badituzte edo haien eragina jasotzen badute.

5. artikulua.- Egoitzaren instalazioak edo zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak ordaindu beharko dute tasa. Ordaintzeko betebeharra berak edo, hala badagokio, bere legezko ordezkariak gauzatu beharko du.

Era berean, Egoitzari tasa ordaintzera boluntarioki behartu diren pertsonen ere eskatu ahal zaie tasa hori, eta horretarako dagokion dokumentua sinatuko da, Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteagatiko eta laguntza jasotzeagatiko tasa kudeatzeko eta kobratzeko sistemaren araudiaren V. Eranskinean zehaztutako ereduaren arabera.

V.- ZERGA-KUOTA

6. artikulua.- Dagokion tarifak eratzen du zerbitzua egiten den modalitate bakoitzaren zerga-kuota, ordenantza honen eranskinean agertzen dena.

VI- SORTZAPENA

7. artikulua.- Tasa sortzen da eta ordaintzeko betebeharra eratzen da eskatzailea egoitzan sartzen denetik, edo ordenantza honetan jasotako zerbitzuren bat ematea eskatzen denetik.

VII.- LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

8. 1.artikulua.- Likidazioak egingo dira, eta tasa hil bakoitzeko lehen astean ordainduko da.

2.- Fotokopien zerbitzua horiek ematean ordainduko da.

3.-Zerga-kuota egunetan zatikatuko da ordainketa berrien kasuan, heriotzengatiko baja bada edo plaza BFarena izatera igarotzen bada.

4.- Baja boluntarioagatik uzten bada egoitza, hilabete bati dagokion likidazioa egingo da.

VIII.- BALIABIDERIK EZ IZATEAGATIK SORTU DIREN ETA ORDAINDU EZ DIREN ASISTENTZIA ETA EGONALDI ZERBITZUAREN TASENTZAKO BERME BEREZIA

9.- Asistentziagatik eta egonaldiagatik sortutako tasa osorik edo partzialki ordaintzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten erabiltzaileen kasuan, sartzean edo egonaldian bat-batean sortu bada, Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteagatiko eta laguntza jasotzeagatiko tasa kudeatzeko eta kobratzeko sistemaren araudian jasotzen diren baldintzetan (Ordenantza honen xedapen gehigarria), araudi horretan aurreikusitako zorra aitortzeko prozedura aplikatuko da, eman diren eta ordaindu ez diren zerbitzuengatik zor diren zenbatekoak zorrotz kontrolatuz eta jarraituz. Hori horrela izango da zorra deuseztatu dela bermatzeko, ondarearen edo onuradunaren likidatu gabeko ondasunen aurka, edo etorkizuneko ondare edo mota guztietako ondasun posibleen aurka, edo onuradunaren aurka.

IX.-XEDAPEN GEHIGARRIA

Zerga-ordenantza hau indarrean dagoen Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteagatiko eta laguntza jasotzeagatiko tasa kudeatzeko eta kobratzeko sistemaren araudiarekin osatuko da, hala badagokio, erakunde horren Batza Artezkariak onartutakoa edo onartu ahal duena.

X.-AZKEN XEDAPENA

Zerga-ordenantza hau eta bere eranskina 1999ko irailaren 23an onartu ziren, 2000ko irailaren 29an, 2001eko irailaren 28an, 2003ko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006ko abenduaren 22an, 2016ko urtarrilaren 27an, 2016ko apirilaren 27an, 2017ko abenduaren 27an, Bizkaiko Lurralde Historikoko

Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta argitaratzearen hurrengo egunean indarrean sartuko da. Horrez gain, indarrean egongo dira aldatzea edo indargabetzea erabakitzen denera arte.

I. ERANSKINA. TARIFA

Zerga-kuota zehazteko, tarifa hauek aplikatuko dira:

A) EGUNEKO ARRETARAKO ZERBITZUA:

Hileko kuota zerbitzuaren erabiltzailearen hileko familia-errenta estandarren portzentaje bat izango da, baremo-taula honen arabera:

Subjektu pasiboaren hileko familia-errenta estandarizatua *	Ehunekoa
500,00 euroraino	% 10
501,00 eurotik – 800,00 eurora	% 15
801,00 eurotik – 1.000 eurora	% 20
1.001 eurotik aurrera	% 25

Gehieneko kuota 300 eurokoa da hilean.

B) ASISTENTZIA ETA EGONALDI ZERBITZUA:

1. I. MENDE TASUN GRADUA DUTEN PERTSONAK. ETXEBIZITZA KOMUNITARIOA:

2001-12-31 baino lehen ingresatutako pertsonak	692,55 euro hilean
2002-01-01etik aurrera ingresatutako pertsonak	2.096,25 euro hilean

2. II-III MENDE TASUN GRADUA DAUKATEN PERTSONAK (Iraungi beharreko tarifa, udal plaza 2017-04-01a baino lehen zeukaten erabiltzaileei aplikatu beharrekoa):

TASA BAKARRA	2.465,00 euro hilean
--------------	-------------------------

Getxoko Jesusen Bihotzaren Udal Egoitzan egoteko Bizkaiko Foru Aldundiaren banakako diru-laguntza jasotzen duten egoiliarrek, eta lankidetzaren hitzarmenean euren egonaldia jasota dutenek, aipatutako foru erakundeak bere araudietan horri buruz xedatutakoa beteko dute. Kontzeptu hauetan ordaindu beharreko zenbatekoak ez dira Ordenantzak beste egoiliar guztientzat onartutakoak baino txikiagoak.

C) BESTE ZERBITZU BATZUK

JANTOKI ZERBITZUA:

GOSARIA	1,50 euro
BAZKARIA	5,35 euro
AFARIA	2,95 euro

D) FOTOKOPIA ZERBITZUA

Fotokopiak A4-Orrialde bat	0,10 euro
Fotokopiak A4-Bi orrialde	0,15 euro
Fotokopiak A3-Orrialde bat	0,15 euro
Fotokopiak A3-Bi orrialde	0,15 euro

HILEKO FAMILIA-ERRENTA ESTANDARIZATUAREN KALKULUA

Familia-errenta (zerga-oinarri orokorra gehi PFEZaren aurrezpenaren zerga oinarria) familia-unitatearen ekibalentzia-koefizientearekin zatitzearen emaitza izango da (koefiziente egokiak batuko dira). Hileko familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko, aurreko emaitza hamabi hileren artean zatituko da:

Subjektu pasiboa	Koefizientea
Ezkontidearekin edo izatezko bikotekidearekin	1,5
Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik gabe	1,3
Genero-indarkeriaren biktima	1,3
Familia-unitateko ume bakoitza	0,3
Familia-unitateko kideetakoren batek desgaitasunik badauka: % 33	0,3

Hileko familia-errenta estandarizatua kalkulatzeko, subjektu pasiboak Bizkaiko Foru Ogasunean edo dagokion zerga-agentzian aurkeztutako azken errenta-aitorpenaren fotokopia aurkeztu beharko du. Ez badu errenta-aitorpena egin beharrik, Ogasunak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko du, baita erakunde berak egindako dokumentua ere, errentaren datu fiskalak jasotzen dituen.